


Lehen pedalkadak ematen

Artzak Ortzeok Txirrindularitza Eskolak aurtengo denboraldiari ekin dio. Infantil, kadete eta jubeniletan ez ezik, amateur mailan ere lehiatzen ari dira aurten auzoko txirrindulariak.

Aitor Urkizu Azuabarrena

Guztira, 12 eta 21 urte bitarteko 29 mutil ari dira aurten Artzak Ortzeok Txirrindularitza Eskolan: txirrindulari bakarra infantil mailan, bost kadetetan, 13 jubeniletan eta hamar amateur mailan. Nabarmentzekoa da Artzak Ortzeok-ekoek, hiru urteko etenaldia eta gero, amateur mailako taldea osatu dutela berriro ere. Taldeko zuzendari Iñaki Zabalegiren hitzetan, "jubeniletan lehiatu ondoren, talderik gabe zeuden auzoko mutilekin lortu dugu, batez ere, amateur taldea aurrera ateratzea".



Argazkian, amateur mailako taldeko txirrindulariak.

Txirrindulari gutxi

Amateur mailan taldea osatu izana Artzak Ortzeok-ekoentzat albiste pozgarria da. Dena dela, eskolan gero eta txirrindulari gutxiago dagoela esan digu Iñakik. "Finean, gazteek bermatzen dute txirrindulari taldeen etorkizuna, eta gu jaiotza tasaren beherakada pairatzen ari gara. Hala ere,

txirrindularitzan ez ezik, beste kirol askotan ere antzera dabilta". Artzak Ortzeok-i dagokionez, infantil mailan 10-12 lagun izatetik bakarra izatera igaro dira, eta kadete mailan, 15etik bostera. Egoerari buelta emateko, txirrindularitza eskolakoak ikastetxeetan eta ikastoletan ari dira lanean. "Garai batean, gaztetxoak guri etortzen zitzaiz-

Hamar lagun ari dira amateur taldean

kigun, bizikletan ibili nahi zutela esanez. Egun, baina, guk joan behar dugu eskoletara gazteak taldera erakartzera", esan digu Iñakik.

Hasi berria den denboraldiari begira, garaipenei ez dietele lehentasunik emango dio taldeko zuzendariak: "Mutilen batek garaipenen bat lortuko balu askoz hobe, baina hala ere, helburu nagusia amateur mailako taldea sendotzea da, datorren urtean jarraipena izan dezan". Artzak Ortzeok Eskolako lagunak txirrindulariak zailtzen iaioak direla ezin ukatu. Izan ere, besteak beste, egun profesionalak diren Iñigo Chaurreau pasaitarrak eta bere lehengusu Mikel Asarlovak edota pistan emaitza apartak lortzen ari diren Asier Maeztu eta Aitor Alonso donostiarrek auzoko taldearen mailota jantzi zuten duela urte batzuk.

MARCOS



Okindegia eta
etxeko gozoak

Ubarburu P., 4-5 pabiloiak • 27 Industrialdea
- Tel: 943 45 09 66 • ASTIGARRAGA

Egun osoz zabalik (10:00etatik 23:00etara)



Karta • Eguneroko menua • Bokatak

IGARA bidea, 16 behea DONOSTIA 20009

Tel.: 943 31 07 97 • 943 21 76 86